

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 2024

*AGINDUA, 2022ko maiatzaren 3koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan unibertsitate-titulu ofizialen akreditazioa berritzeko deialdiaren epea.*

Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 35.2 artikuluan adierazten denez (lege hori apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoaren bidez aldatu zen), unibertsitateek autonomia erkidegoaren baimena izan beharko dute, bai eta Unibertsitate Kontseiluaren egiaztapena lortu ere dagokion ikasketa-plana irakaskuntza ofizialak emateko Gobernuak ezarritako jarraibideekin eta baldintzekin bat datorrela ziurtatzeko.

Irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuak, unibertsitate-ikasketen antolamendua eta horien kalitatea bermatzeko prozedura ezartzen dituenak, eta urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretuak, doktoretzako ikasketa ofizialak arautzen dituenak, eta haren ondorengo aldaketek, kasu bakoitzean titulu ofizialak egiaztatze, akreditatze, jarraipena egiteko eta berritzeko prozedurak arautzen dituzte.

822/2021 Errege Dekretuaren 34. artikuluko lehenengo apartatua ezartzen denez, akreditazio instituzionalik ez duten unibertsitate-zentroek beren unibertsitate-titulu ofizialen akreditazioa berritu beharko dute, autonomia-erkidego bakoitzak bere eskumen-eremuko unibertsitateekin lotuta ezartzen duen prozeduraren arabera.

Halaber, gradu, master eta doktoregoko kasuetan akreditazioa berritzeko gehieneko epeak ezartzen dira, zeinak titulua ematen hasten denetik edo aurreko akreditazioa berritzen denetik zenbatzen hasiko baitira.

Arau berberaren arabera, Unibertsitate Kontseiluak ebatziko du berritze-prozedura, dagokion kalitate-agentziaren (kasu honetan, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia) nahitaezko txosten loteslea oinarri hartuta.

Horregatik guztiagatik, eta gradu, master eta doktorego tituluak lortzeko egin behar diren unibertsitate-ikasketa ofizialak ezartzeari eta kentzeari buruzko abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuaren 17.1 artikulua eslelitutako eskumenez baliatuz,

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– 2022ko deialdiaren epea ezartzea titulu ofizialen akreditazioa berritzea eska dezaten Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremuko unibertsitateek. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa da, agindu hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Prozedura abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuaren 17. artikuluan arautzen da, gradu, master eta doktoregoko unibertsitate-tituluen akreditazioa berritzeko prozedura eta epeak ezartzen dituenak.

Hirugarrena.– Prozedura hori ofiziala izango da, eta araudian aurreikusitako ondorioak izango ditu, hau da, akreditazio-ebazpena aldekoa bada, titulazioa ofizialki akreditatua geldituko da. Aitzitik, prozedura amaituta, ebazpena kontrakoa bada, ikasketa-plana iraungitzat joko da, eta ikasketa horietan diharduten ikasleen eskubide akademikoak bermatzeko neurri egokiak hartuko dira.

2022ko maiatzaren 12a, osteguna

Laugarrena.– Ebaluazio-prozesua egiteko, «Euskal Unibertsitate Sistemako Gradu eta Master Tituluen Egiaztatzea Berritzeko Protokoloa» eta «Euskal Unibertsitate Sistemako Doktorego Tituluen Egiaztatzea Berritzeko Protokoloa» delakoei jarraituko zaie.

Bosgarrena.– Titulazio bakoitzari dagokion eskabidea Unibertsitate-ikasketen antolamendua eta horien kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuaren 34. artikuluko 3. apartatuan ezarritakoari jarraikiz egingo da.

Seigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 3a.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.